

1. ENTZUMENA: OPORRAK

Sarak eta Ibanek kalean egin dute topo. Iban kanpoan izan da oporretan eta Sarari kontatu dizkio han ikusi eta bizitakoak.



Entzun baino lehen, irakurri ondo sei galderak eta ulertu. (Zerbait ulertzen ez baduzu, begiratu hiztegia). Jarraian, entzun elkarrizketa eta erantzun horren inguruko galderei.

1. Zer kontatu dio Ibanek Sarari?

- A. Bart gauean iritsi zela oporretatik.
- B. Laneko bidaia bat egin duela.
- C. Ez dagoela nekatuta.

2. Zenbat denbora egin zenuen Australiara iristen?

- A. Guztira, 32 ordu inguru.
- B. Guztira, 22 ordu inguru.
- C. Asko, 32 ordu hegazkinez.

3. Zer eguraldi izan du Ibanek Australian?

- A. Australiako iparraldean bero handia.
- B. Australiako hegoaldean bero handia.
- C. Australiako iparraldean eguraldi euritsua.

4. Zein animalia ikusi ditu Ibanek?

- A. Kanguruak ikusi ditu. Koalak ere bai.
- B. Kanguruak ikusi ditu, baina koalarik ez du ikusi.
- C. Krokodiloak eta marrazo ikaragarriak ikusi ditu.

5. Zer dago Australiako basamortuan?

- A. "Koralezko hesia".
- B. "Uluru" izeneko mendia dago.
- C. Magia egiten duten aborigenak.

6. Sarari gustatu al zaio Ibanek kontatu diona?

- A. Batere ez.
- B. Pixka bat, bai.
- C. Asko, berak ere joan egin nahi du.

2. ENTZUMENA: MEZUAK



Amaia, oportetarik etorri denean, erantzungailuan 6 mezu dituela konturatu da. Entzun 6 mezuak eta lotu mezuak esaldiekin. Esaldi bat soberan dago.

1. mezua:	2. mezua:	3. mezua:	4. mezua:	5. mezua:
-----------	-----------	-----------	-----------	-----------

ESALDIAK	MEZUA
Bisita egin nahi dio	6. mezua:
Txanda emateko deitu dute	
Medikuak hitzordua aldatzeko deitu dio.	
Eiderrek afaltzera gonbidatu du.	
Amaiak ikastolako bilera du.	
“Haizea” tabernan geratu dira lagunak.	
Amaiak eskatutako mahaia iritsi da dendara.	

3. ENTZUMENA: HOTELA ERRESERBATZEA

Pertsona batek hotel batera deitu du telefonoz gela bat erreserbatzeko. Harreragilearekin izango duen elkarrizketa entzungo duzu jarraian.



Entzun baino lehen, irakurri ondo sei galderak eta ulertu. (Zerbait ulertzen ez baduzu, begiratu hiztegia). Jarraian, entzun elkarrizketa eta erantzun horren inguruko galderei.

1. Hotelean ba al dago aparkalekurik?

- A. Bai, baina ordaindu egin behar da.
- B. Ez, ez dauka aparkalekurik.
- C. Doaneko aparkalekua dauka hotelak.

2. Zenbat pertsonentzako egin du erreserba?

- A. Pertsona batentzako.
- B. Bi pertsonentzako.
- C. Hiru pertsonentzako.

3. Erreserbatu duen gelatik zer ikusten da?

- A. Itsasoa.
- B. Igerilekua.
- C. Aparkalekua.

4. Zein egunetarako egin du erreserba?

- A. Larunbaterako eta iganderako.
- B. Ostiralerako eta iganderako.
- C. Ostiralerako eta larunbaterako.

5. Non aparkatuko dute autoa?

- A. Hotelean.
- B. Doanekoa den aparkalekuan.
- C. Hondartzan.

6. Zer gertatu da gosariarekin?

- A. Ez dute gosaririk erreserbatu.
- B. Merezi duelako erreserbatu dute.
- C. Hotela lo egiteko soilik da.

4. ENTZUMENA: AHOLKUAK EMATEN



Josu Markelen pisukide berria da. Gasteiz ezagutzen ez duenez, Markeli aholkua eskatu dio eguneroko erosketak non egin jakiteko.

Entzun “Aholkuak ematen” entzungaia eta lotu esaldiak irudiekin. 3 soberan daude.



A



B



C



D



E



F



G



H



I

<u>ESALDIAK</u>	<u>IRUDIA</u>
1. Andoniren aitak egiten ditu.	
2. Bertan erosten ditu arrautzak.	
3. Markelek aste honetan egingo du.	
4. Etxe azpian saltzen dute.	
5. Non egiten zituen lehen erosketak?	
6. Nolako arraina dute udaletxe alboko arrandegian?	